

# gutunzuria

V Festival Internacional de las Letras de Bilbao

LITERATURA GONBIDATUA:

**AEB.**

## EZKUTUKO HITZAK

**16-22** APIRILA

Literatura gonbidatua: AEB.

WILLIAM GIBSON  
PHILIP GOUREVITCH  
BILL KELLER  
CHUCK PALAHNIUK  
JOHN VERDON

Egitaraua generala

INOCENCIO ARIAS  
BERNARDO ATXAGA  
ROSA MARÍA CALAF  
HANS MAGNUS ENZENSBERGER  
TAHAR BEN JELLOUM  
LINA BEN MEHNI  
ANTON ZEILINGER

Aurrez aurre

ALMUDENA GRANDES  
DANIEL INNERARITY  
ANJEL LERTXUNDI  
MANUEL RIVAS

+ info: [www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

Antolatzailea

**hó**

AlhóndigaBilbao

+ Info



Bideoa



# gutunzuria

## V Festival Internacional de las Letras de Bilbao

Erabateko konplexutasuna duen eta informazioz gainezka dagoen mundu batean, denbora hartu behar da erreala eta irreala dena bereizteko, denbora eta normalean eskura ez ditugun baliabide batzuk ere bai. Informazioko nahasmen horren erdian, gezurra ezari-ezarian iragazten joaten da, batzuetan ustekabean, baina beste askotan berariaz. Ia denari buruz hitz egiten da eta iritzia ematen da, horri buruz ezagutza urria izan arren, baieztapen urrunak oinarritzat hartuta, baieztapen horien egiazkotasuna inork ezin badu frogatu ere. Horrelako lur higikorretan, baldintza egokiak sortzen dira pertsonek edo taldeek beren interesen aldeko bertsoiak eta zurrumurruak zabal ditzaten.

### “Idazleek kontatu behar digute zein eratan den literatura egiaren eta gezurraren arteko jolas bat, zentzuaren bila doana”

Ezinbestez, zenbat eta gezur gehiago, zenbat eta erdi egia gehiago ibili hara-hona, orduan eta sekretu gehiago egongo da ondo gordeta. Izan ere, kontu batek bestea ekartzen du ondorioz. Gezurra dioenak, ezkutatu egiten du. Eta ezku-

tatutakoaren atzetik sekretuak egiten du habia.

2011ko Gutun Zuriaren edizioa zabaldu zuen hamarkadari buruzko hausnarketei jarraipena emanez, aurten, sekretu eta gezur horiek gure bizitzan duten pisu ikusezina landuko dugu AlhóndigaBilbaon. Sakon ikertu nahi dugu nola markatzen duten oraina eta zenbateraino baldintza dezaketen etorkizuna.

Literatura oso bide egokia da horretarako, irudipenen, ambiguitasunen eta itxuren jolasa baita haren oinarria. Izan ere, paradoxikoa izan arren, idazleek egia jakin batzuk adierazten dituzte, asmakizunak eta moztarroak erabiliz,



Paul Holdengraber-ek, pasa den urteko Gutun Zuria jaialdian, Salman Rusdhie eta Slavoj Žižek elkarriketatu zituen

eta Gutun Zurian zera nahiko genuke: beraiek azal dezaten nola erakusten duen literaturak desitxuratze eta gezurren estalkiaren atzean dagoena, hau da, errealitatetzat hartzen dugun zera horren ondoan ezkututzen dena.

Zeharkako ikuspegi hori osatze aldera, gaia aurrez aurre azalduko dugu: hedabideek duten gardentasunari buruzko egun bat sartu dugu programan. Hedabideek duten zeregin baliobiduna ikusita, aukera ona izango dugu esperientzia duten kazetariek barrutik azal ditzaten gezurrari aurre egiteko eta sekretuetan argi egiteko egon daitezkeen beste bide batzuk.



Aurten, Gutun Zuria — Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren bosgarren edizioa izango da. Gutun Zuria AlhóndigaBilbaok atek zabaldu aurretik gauzatu zen. 2006. urtean, Euskadiko liburu-azoken koordinatzailea zen Asier Muniategi, Iñaki Esteban kazetaria eta ni neu bildu ginen AlhóndigaBilbaok Autonomia kalean zituen behin-behineko bulegoetan, solasean aritzeko, literaturako jaialdi bat egin nahi baikenuen Bilbon, hiriak munduko beste literatura batzuen berri jaso ahal izan zezan, egileen eskuetatik zuzenean. Hala, erabaki genuen zabalik egon behar zuela genero, estilo eta gai desberdinetara —AlhóndigaBilbao gisa—, baina kosmopolitismo horrek ez zuela ezkutatu behar zein zen abiaburua: Bilbao, Euskal Herria, euskara...

### “Apurka-apurka, leun-leunki, Gutun Zuria jaialdia gure bizitzan sartzen joan da”

Izaera ireki horretatik datorkio izena, Gutun Zuria: gutun zuri bat, zuri dagoen orri bat, gonbidatutako egile bakoitzak bertan azal ditzan bere ideiak eta sentimenduak, bizi izan dituen errealitateak, edo haren uestez sekula kontatu izan diren edo berak irudikatu dituen istoriorik harrigarrienak, ederrenak edo latzenak.

Apurka-apurka, leun-leunki, Gutun Zuria jaialdia gure bizitzan sartzen joan da. Egile eta pentsalari asko etorri dira Bilbora, beren hausnarketan eta fikzioen berri ematera, hala nola, Cees Nooteboom, Ismail Kadaré, Elena Poniatowska, Jorge Semprún, Catherine Millet, Slavoj Žižek, Eric Hobsbawm eta Hanif Kureishi. Pribilegio eta atsegin handia izan da.

Jaialdiak aurrera jarraitzen du, dinamismo handiz beti, eta edizio honetan, aisialdi eta kultura zentroaren hormak gainditu, eta atal berriak zabalduko ditu, esate baterako, Aurre-jaialdia. Izan dezagun Gutun Zuria urte askotarako! •

#### Paul Holdengraber

2004. urtetik hona, elkarrizketa, eztabaida eta performanceei buruzko *Live* programa handinahia eta probokatzailera zuzentzen du New Yorkeko liburutegi publikoan. Komisario-lana egin du gaurkotasuneko gaiei buruzko 200 programatan baino gehiagotan, eta elkarrizketa egin die hainbat pertsona ospetsuri, besteak beste, Margaret Atwood, Norman Mailer, Werner Herzog, Umberto Eco eta Jay-Zri. Frantziako gobernuak Arteen eta Letren Zaldun izendatu du, eta Austriako Zientzien eta Artearen Ohorezko Gurutzea ere jaso du.

## GUTUN ZURIAREN PROGRAMAZIOA

### AURRE-JAIALDIA · 2012ko APIRILA

<b>ASTELEHENA</b> <b>16</b>	<b>ZINEMALDIA</b> Proiektzioa: <i>El Mar</i> , Agustí Villaronga (2000) 16:00 h / Golem Alhóndiga zinemak  4 €	<b>ZINEMALDIA</b> Proiektzioa: <i>La vida mancha</i> , Enrique Urbizu (2002) 18:00 h / Golem Alhóndiga zinemak  4 €	<b>MAHAI-INGURUA:</b> <b>ZINEMARA EGINDAKO LITERATURAKO EGOKITZAPENAK</b> Enrique Urbizu, Agustí Villaronga, Jorge Gericacchevarría eta Fernando Marías 20:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Sarrera dohainik (*)	
<b>ASTEARTEA</b> <b>17</b>	<b>ESPETXETIK</b> Manuel Rivas Basuriko Espetxeko presoekin	<b>AURREZ AURRE</b> Manuel Rivasek aurkeztua <i>Todo es silencio</i> 19:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta Sarrera dohainik (*)	<b>AURREZ AURRE</b> Almudena Grandesek aurkeztua <i>El lector de Julio Verne</i> 20:30 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta Sarrera dohainik (*)	<b>LIBURUAK SINATZEA</b> Almudena Grandes <i>El Lector de Julio Verne</i> eleberriar <span></span> en aurkezp <span></span> ena amaitu ondoren Auditoriumeko halla / -1. solairua
<b>ASTEAZKENA</b> <b>18</b>	<b>ERANTZUN, AUSARTZEN BAZARA</b> Manuel Rivas Batxilergoko eta DBHko 2. zikloko ikasleak 11:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Zuzenean parte hartu ahal izango da <i>hó</i> -ren <i>streaming</i> kanalaren bidez, edo <i>facebook</i> eta <i>twitter</i> -en bidez	<b>AURREZ AURRE</b> Anjel Lertxundik aurkeztua <i>Etxeko hautsa</i> Parte-hartzailea: Inazio Mujik 19:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta Sarrera dohainik (*)	<b>AURREZ AURRE</b> Daniel Innerarityk aurkeztua <i>La democracia del conocimiento</i> Parte-hartzaileak: Iñaki Gabilondo, Pedro M.ª Etxenike eta José Antonio Marina 20:30 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta Sarrera dohainik (*)	

### JAIALDIA · 2012ko APIRILA

<b>OSTEGUNA</b> <b>19</b>	<b>SOLASEAN</b> Bill Keller Iñaki Gabilondorekin Literatura gonbidatua: Estatu Batuak 19:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	<b>SOLASEAN</b> Chuck Palahniuk Javier Calvorekin Literatura gonbidatua: Estatu Batuak 20:30 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	<b>IRAKURLEAREN ORDUA</b> Bilera Chuck Palahniukekin 22:00 h / Auditoriumeko atartea -1. solairua / Sarrera dohainik, hitzaldira joaten diren laguntzatz bakarrik	
<b>OSTIRALA</b> <b>20</b>	<b>NAZIOARTEKO POLITIKARI BURUZ SOLASEAN</b> Inocencio Arias, Rosa María Calaf eta Philip Gourevitch 19:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	<b>LIBURUAK SINATZEA</b> Chuck Palahniuk 19:30 h / Fnac Bilbao Sarrera dohainik	<b>SOLASEAN</b> John Verdon Paul Holdengraberrekin Literatura gonbidatua: Estatu Batuak 20:30 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	<b>IRAKURLEAREN ORDUA</b> Bilera John Verdonekin 22:00 h / Auditoriumeko atartea -1. solairua / Sarrera dohainik, hitzaldira joaten diren laguntzatz bakarrik
<b>LARUNBATA</b> <b>21</b>	<b>LIBURUAK SINATZEA</b> John Verdon, Hans Magnus Enzensberger eta Philip Gourevitch 12:30 h / Kulturen Ataria Sarrera dohainik	<b>SOLASEAN</b> Anton Zeilinger eta Hans Magnus Enzensberger 19:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	<b>SOLASEAN</b> William Gibson Rodrigo Fresánek <span></span> in Literatura gonbidatua: Estatu Batuak 20:30 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	
<b>IRAKURLEAREN ORDUA</b> Bilera William Gibsonekin 22:00 h / Auditoriumeko atartea -1. solairua. Sarrera dohainik, hitzaldira joaten diren laguntzatz bakarrik	<b>BERTSO-SAIOA</b> Uxue Alberdi, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga 22:00 h / Kulturen Ataria Jende guztiari zuzenduta Sarrera dohainik	<b>SOLASEAN</b> Bernardo Atxaga Àngels Barcelórekin 19:00 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €	<b>IRAKURLEAREN ORDUA</b> Bilera Bernardo Atxagarekin 20:30 h / Auditoriumeko atartea -1. solairua / Sarrera dohainik, hitzaldira joaten diren laguntzatz bakarrik	
<b>IGANDEA</b> <b>22</b>	<b>SOLASEAN</b> Tahar Ben Jelloun eta Lina Ben Mhenni Ana Aizpirirekin 12:30 h / Auditoriuma / -1. solairua Jende guztiari zuzenduta 2 €			

Irudiak  
Gutun Zuria  
2011



Salman Rusdhie



Karmele Jaio eta Soledad Puértolas



Auditoriuma jaialdian

#### SARRERAK SALGAI EGONGO DIRA MARTXOAREN 1ETIK AURRERA, INFOPUNTUAN ETA TICKET BOXEN

(\*) Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero, eserleku guztiak bete arte. Gonbidapena jasotzeko, *hó* txartela eduki behar da (gonbidapen bat banatuko da lagun bakoitzeko)





# INFORMAZIO ERABILGARRIA



Sarrerak salgai egongo dira  
martxoaren 1etik aurrera,  
Infopuntuan eta Ticket Boxen

Zinemaldia • 4 € / 3 € hó txartelarekin  
Liburuak sinatzea • Sarrera dohainik  
Mahai-ingurua • Sarrera dohainik (\*)  
Zuzenean • Sarrera dohainik (\*)  
Aurrez Aurre • 2 €  
Irakurlearen ordua • (\*\*)  
Bertsolariak • Sarrera dohainik

(\*) Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero, eserleku guztiak bete arte. Gonbidapena jasotzeko, nahitaezkoa da hó txartela izatea (gonbidapen bana emango da txartel bakoitzeko)  
(\*\*) Irakurlearen ordua:  
Sarrera doakoa izango da hitzaldira joaten diren lagunen-tzat bakarrik

Jarraitu programazioa eta ikusi Gutun Zuriaren bideoa hemen



Ezin bazara hitzaldietara etorri edo sarrerarik gabe geratzen bazara, jarrai iezaguzu zuzenean hemen



Laguntza teknikoren bat behar baduzu gure ekitaldietara errazago iritsi ahal izateko, edo entzumen aldeko ahalmen gehiagoz jardueraz gozatu ahal izateko, eska iezaguzu. AlhóndigaBilbao jende guztiari zabalik dagoen gunea da

**Helbidea:** Arriquirar plaza 4, - 48010 BILBAO

**NOLA HELDU?**

**Autobusez:** Lineak 18, 76, 26, 27, 38, 48, 62, 72, 77

**Metroz:** Indautxuko geltokia - Urkixoko irteera


Moyuako geltokia - Elcanoko irteera

[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

[info@alhondigabilbao.com](mailto:info@alhondigabilbao.com)

ARRIQUIBAR PLAZA, 4

944 014 014



**hó** **B**  
AlhóndigaBilbao

Babeslea Patrocina

**bbk**

**EL CORREO**

Laguntzailea Colabora

**metro bilbao**

**mac**  
[www.mac.es](http://www.mac.es)

**Bilbao** Musika

**125**

Bilboko Koral Elkarte  
Sociedad Coral de Bilbao

**CÁMARA DEL LIBRO DE EUSKADI**  
EUSKADIKO LIBURU-GANBARRA

**BIZKAIA**  
Asociación de Librerías  
Liburu Saltatzen Elkartea

*Yamitola*

**Shopa**